

1990 eta 2017 bitarteko narratiba-lanen itzultzaileen azterketa genero-ikuspegitik

ITZIAR MURGIENDO AGIRRE

Sarrera

Bada kezka bat zenbait (euskal) itzultzailearen artean helduentzako literatura itzultzen ari diren itzultzaileen artean emakumezkoak ez direlako itzultzaile-lanetan ari diren emakumezkoak adina. Blog bateko sarrera batean, UPV/EHUko udako ikastaro bateko hitzaldi batean zein Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduko eskolaren batean adierazi izan da susmo hori, esate baterako, baina horretan gelditu izan dira. Lan¹ honen xedea arlo horretan egoera zein den aztertzea izan da, eta, horretarako, literatura-itzulpengintzako datuak bildu, eta azterketa kuantitatiboa egin dugu.

Literatura-itzulpen guztiak aztertzea ezinezkoa zaigunez, eremua mugatu dugu. Batetik, aldiari dagokionez, 1990. eta 2017. urteen artean itzuli eta argitaratu diren lanak hartu ditugu kontuan. Literatura-generoari dagokionez, berriz, narratiba-lanetara mugatu gara, eta ez dugu egin bereizketarik nobelen eta ipuin-liburuaren artean.

EIZI Eren Nor da Nor datu-basetik abiatuta (aurrerantzean, NdN), datu-base bat egin dugu aipaturako garai eta generoko lanekin, eta hori oinarri izanik aztertu dugu, genero-ikuspegia aintzat hartuta, zenbat itzulpen egin eta argitaratu diren urte horietan; zenbat itzultzaile aritu diren horiek itzultzen; zer bilakaera egon den emakumezko itzultzaileen kopuruetan urterik urte; zenbat itzultzaile aritu diren guztira lan horiek aztertzen eta zenbana lan itzuli dituzten; argialetxe bakoitzean zenbat lan argitaratu diren eta zenbat emakumezko itzultzaile aritu di-

1. Artikulu honen oinarrian, 2018ko irailean aurkeztu eta defendatutako izen bereko gradu amaierako lana dago. Horrenbestez, artikuluan agertzen diren datu guztiak garai hori baino lehenagokoak dira.

ren, eta, biren edo gehiagoren artean egin diren itzulpenen kasuan, zenbat emakumezko egon diren eta zenbat gizonezko. Datu horiek testuinguruan jarri eta konparazioak egiteko, EIZIEko bazkideen zein UPV/EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioko Graduako ikasleen datuak jaso ditugu.

Ikergai honen aurrekariak

Generoari erreparatuta euskarara literatura itzuli duten itzultzaileei buruzko aipamen zein lanak laburbilduko ditugu jarraian. Aipatutako lanen gai nagusia guk aztertutikoa baino zabalagoa da, gure ikergaiari hertsiki lotzen zaion lanik ez baitugu topatu; hala ere, baliagarriak iruditzen zaizkigun zenbait datu aurkitu ditugu, genero-ikuspegia aintzat hartzen baitute. Argitaratu diren urtearen araberrako hurrenkeran aurkeztuko ditugu Bakartxo Arrizabalagaren artikulua bat, Siadecok EIZIEren enkarguz egindako ikerketa bateko zenbait emaitza, Bego Montorioren aipamen eta artikulua bana, eta Ane Garcia Lopezen gradu amaierako lana.

Bakartxo Arrizabalagak, «Itzulpena eta feminismoa» (2007) artikulua ren lehen atalean, *Itzulpenen subjektu agentea. Emazte itzultzaileak* izenekoan, emakumezkoek itzulpengintzan zer leku duten jakin nahi baldin bada «azterketa horren beharra» adierazten du (2007: 81).

Arrizabalagak dioenez, langintzaren tasunak direla-eta, emakumezko askok erabaki du horretan jardutea, eta, hain zuzen ere, horietan izan dira itzulpenaren alorrean emakumea hain agerian ez egotera eraman dutenak. Besteak beste, ikusezin izatea, besterentzat lan egitea eta etxetik lanean aritzea aipatzen ditu langintzaren ezaugarri gisa.

Artikulu horretan bertan, Michaela Wolf ikertzailearen 2000. urteko ikerketa bati buruz hitz egiten du, zeinetan baieztatzen den alemanaren eremuan, oro har, itzultzaile gehienak emakumezkoak direla eta etxetik aritzen direla asko. Halaber, Arrizabalagak badio ere arlo hori aztertzea falta dela, adierazten du euskal itzultzaileon artean ere «emakumeok gehiengo osatzen dugula» (2007: 82), nahiz eta ausartzen den esatera oraindik ere «itzultzailearen irudia gizonezkoa dela» (2007: 82), batez ere itzultzaile ospedunen eta eredugarri direnen artean.

Bestalde, 2006. urtean, Siadecok *Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen ikerketa soziologikoa* (2006) azterlana² egin zuen, EIZIEren enkarguz. Ikerketa horretan, elur-bolaren teknika³ erabiliz, 394 itzultzailez osatutako errolda bat egin zuten. Inkesta bat bidali zitzaizen, eta 220 itzultzailek erantzun zieten galderari. Parte-hartzaileen datuei erreparatuz eta generoa aintzat hartuta, emakumezko eta gizonezko itzultzaileen kopurua parekoa da; emakumezkoak 111 izan ziren (% 51); gizonezkoak, aldiz, 109 (% 49).

2. Ikerketa horretako datuak eskuratu ahal izateko, EIZIErekin jarri ginen harremanetan; izan ere, haien enkarguz egindako lana izan zen, eta ez zuten zabaldu. Eskerrak eman nahi dizkiegu informazioa emateko izan duten prestutasunagatik.

3. Elur-bolaren teknika laginketa-metodo bat da, lagina osatzeko subjektuak aurkitzea zaila denean erabiltzen dena. Siadecoren ikerketaren kasuan, euskal itzultzaile, interprete eta zuzentzaileen errolda bat egiteko asmoz, galdetegi bat bidali zitzaizen EIZIEko bazkideei (lehenengo elur-bola), eta, haiek emandako izenekin, berriz ere bigarren elur-bola bat igorri zuten, langintza horietan ari ziren ahalik eta kide gehienak bilatu eta errolda egiteko.

Lagina gure aztergaikoa baino zabalagoa da, ikerketa horretan itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteek hartu baitzuten parte, eta ez da, beraz, helduen narratiba itzuli duten itzultzaileen eremu zehatzari buruzkoa soilik. Halaber, ez zituzten kontuan hartu, inondik ere, euskal itzulpengintzaren alorrean ari diren lagun guztiak, baina, datu horiei esker, izan dezakegu ideia bat langintzan ari direnei buruz.

2013an, Elearazi blogean, «Euskarazko itzulpengintza: azkenaldiko joerak (I)» izeneko postean, «Azkenaldian euskarara itzulitako literatura: bideak, joerak eta esperientziak» UPV/EHUko udako ikastaroaren lehenengo saioko kronika jaso zuen Danele Sarriugartek, eta, postean irakur daitekeenez, Bego Montoriok «Literatura Unibertsala: bilduma bat, ekarpen ugari» izeneko hitzaldian adierazi zuen, batetik, Literatura Unibertsala bilduman itzultzaile gizonezkoak gehiago direla emakumezkoen aldean, nahiz eta alde hori «apaltzen» ari den, eta, bestetik, hori eragin dezaketen «arrazoiak argitzeko zenbait faktore aintzat hartzekoak liratekeela».

Bestalde, Bego Montoriok berak idatzitako iritzi-artikulu bat ere badago 31eskutik itzulpengintzari buruzko blogean. «Sotanak eta bestelako gonak» deritzon artikuluan aipatzen du, labur esateko, xx. mendeko itzultzaile aipagarrienak zein izan ziren aztertzen ari zela ikusi zuela EIZIEk izendatu zituen 51 ohorezko bazkideetatik bi bakarrik direla emakumezkoak. Horri kontrajarrita, berriz, gaur egungo datuak ematen ditu, Siadecok EIZIEren enkarguz egin eta jada aipatu dugun ikerketa oinarri hartuta. Esan bezala, galdetegiarri erantzun zieten 220 itzultzaileetatik % 50,5 emakumezkoak ziren. Orobat, aipatzen du EIZIEko bazkideen artean % 56 direla emakumezkoak, eta Gasteizen, Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketetan ere, «gehiengo erabatekoa neskak» direla.

Montorioren artikuluan, onartzen da Mendebaldeko emakumezkoen egoera asko aldatu dela azken hamarkadetan, baina, hala ere, autoreak azpimarratzen du errealitateari begiratzeko moduak ere izango duela eragina aurretik aipatu den desberdintasunari dagokionez, eta ondorioztatzen du ondo egongo litzatekeela garai horri «beste begi batzuekin begiratzea», Montorioren ustez horrek eragingo bailuke egun ez dauden beste itzultzaile batzuk ere agertzea.

Bukatzeko, Ane Garcia Lopezen *Poesia itzulpena: jarduera periferiko baten analisisia* (2016) izeneko gradu amaierako lanean, orain arte euskarara ekarritako poesiaren analisi bat egiten da, eta, besteak beste, emakumezkoek itzulpen horiek egiterakoan zer leku izan duten aztertzen da.

Poesiako monografiak itzuli dituztenen generoari erreparatuta, Garcia Lopezen arabera, 84 itzultzailetik lau dira emakumezkoak; horrenbestez, % 5 baino gutxiago da horretan aritu diren emakumezkoen kopurua. Datu hori harrigarritzat jotzen du autoreak; izan ere, Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketetako ikasleen artean dauden gizonezko ikasleak ez dira asko izaten. Gehien itzuli izan duten itzultzaileen artean kokatzen dituen guztiak gizonezkoak dira, gainera: Juan Angel Etxebarria, Koldo Izagirre, Josu Landa, Gerardo Markuleta, Andima Ibinagabeitia, Eduardo Gil, Joseba Sarrionandia, Juan Garzia (2016: 10).

Bestalde, 1980tik aurrera monografia ez beste euskarrietan publikatu den poesiari dagokionez, 130 itzultzaile aritu direla aipatzen du Garcia Lopezek, eta azpimarratzen du horietatik

asko idazleak direla. Aldi horretan, guztira 691 poema zenbatu ditu Garcia Lopezek, eta haie-tatik 65 lan itzuli dituzte emakumezkoek. Itzultzaileei dagokionez, 65 lan horiek 21 emakumek itzuli dituzte, eta lan horiek itzuli dituzten itzultzaile kopuru osoaren % 16,15 da (2016: 15).

Horrenbestez, Garcia Lopezek ondorioztatzen duenez, nagusiki gizonetzkoek euskaratutako poesia argitaratzen da. Hala ere, adierazten du horren arrazoia ez dela «emakumezko itzul-tzaileen falta», ezpada «gure gizarteari estrukturalki eragiten dioten hainbat arrazoi» (2016: 16) —esate baterako, heteropatriarkatua—, eta horrek eragiten duela gizonetzkoek poesiaren itzulpenean leku gehiago izatea.

Metodologia

Aldiaren eta literatura-generoaren mugaketa

Lanean aztertuko den aldia 1990etik 2017rako tartea da, eta bi faktore hartu dira kontuan tarte hori aukeratzekoan. Batetik, hasierako urte hori ezarri da orduan hasi zirelako Lite-ratura Unibertsala bildumako lehen argitalpenak. Bilduma horren xedea atzerriko literatura euskarara ekarri eta argitaratzea da, eta egitasmo instituzionala eta, beraz, publikoa da. Miren Ibarluzearen «Literatura Unibertsala bildumaren bideak» (2013) artikuluan ikus daitekeenez, haren oinarrian EIZIEren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren arteko hitzarmen bat dago, eta, besteak beste, euskara normalizatzeko egindako urrats bat da, itzulpengintzako jarduerak ezinbestekoak baitira ildo horretan. Halaber, esan daiteke baduela itzulpengintzaren alorreko jarduerak eta horretan diharduten profesionalak bultzatzeko asmoa ere, eta bildumaren xedea betetzeko plangintza bati jarraituta egina dela.

Horrenbestez, ondoriozta daiteke literatura-itzulpenak argitaratzeko politika bat ezarri zela Eusko Jaurlaritzaren eta EIZIEren arteko hitzarmenarekin, eta, beraz, pentsa liteke literatura-itzulpenen argitalpenak areagotuz joango zirela urte horretatik aurrera. Ildo horretatik, Manu López Gasenik (2009) egin zuen euskal itzulpeni buruzko azterketan adierazten duenez, 1976. eta 2008. urteen artean, 1990eko hamarraldian argitaratu ziren itzulpen gehien, eta gogora-razten digu garai horretan sortu zirela, besteak beste, itzulpen-ikasketak, EIZIE eta Literatura Unibertsala.

Amaierako urteari dagokionez, 2017a jarri dugu, artikulua honen oinarrian dagoen lana 2018ko irailean aurkeztu genuelako eta urtea osorik hartzeko aukera eman zigulako horrek.

Itzultzaileen azterketa egiteko itzulpenen euren generoari dagokionez, berriz, kanonaren erdigunean egongo liratekeen lanak hartu ditugu, hau da, helduen literaturako narratibako lanak, halakoak itzultzen dituztenak baitira, ziur asko, agerien dauden itzultzaileak, egunkarie-tako berri zein argitalpenetan gehien agertzen direnak. López Gaseniren azterketan ikus daite-keenez, ez dira, kopuruari dagokionez, gehien itzultzen direnak, haur- eta gazte-literaturakoak (HGL) baitira. Edonola ere, ez dirudi halako lanen itzultzaileak hainbeste aintzatesten direnik, eta, orobat, ez dute horrenbesteko ikusgarritasunik.

Joan Mari Torrealdaren (2018) 2016ko euskal liburugintzaren azterketan ikus daitekeenez, euskaraz publikatutako lanak ekoizpen tematikoaren arabera sailkatuz gero, hauek dira ehunekoak:

% 38	Hezkuntza, irakaskuntza
% 23,7	Haur eta gazteentzako liburuak
% 15,4	Giza/Gizarte zientziak
% 13	Helduen literatura
% 5,2	Zientzia. Teknika
% 3,7	Aisia liburuak
% 1	Besterik

1. taula: Euskarazko argitalpenak ekoizpen tematikoaren arabera.
Iturria: Joan Mari Torrealdai (2018: 104 or.).

Literaturari bagazokio, HGLko argitalpenak dira nagusi, eta ia ekoizpen horren erdia hartuko lukete helduen literaturako argitalpenek. HGLko argitalpenen artean, gainera, 489 titulutik % 68,1 itzulitako lanak dira (Torrealdai, 2018: 104); beraz, pisu handia dauka itzulpenak arlo horretan.

Helduen literaturako tituluak dagokienez, bestalde, 268 titulu aipatzen ditu Torrealdai (2018: 108), eta horietatik % 23,6 dira itzulpenak.

Helduei zuzendutako tituluak generoka banatuz gero, Torrealdaren arabera, % 52,4 eleberraren eta ipuinaren multzokoak dira, eta, ondoren, olerkia egongo litzateke (% 21,3). Tartea, beraz, oso nabarmena da, eta argi ikus daiteke zein den helduen literaturan nagusi den generoa. Hori dela eta, aztergaia genero horretara mugatu dugu, itzultzaileen agerikotasuna ez ezik aintzat hartuta helduen literaturako kopuru handiena genero horretakoa dela eta, beraz, azterketa ahalik eta osoena egiteko datuak genero horretatik aterako ditugulako.

Azkenik, aipatu behar dugu papereko argitalpenetan jarri dugula arreta eta, horrenbestez, kanpoan gelditu direla Interneteko argitalpenak (Elearazi, Berbaratza, Armiarma...); izan ere, guk aztertutako aldi osoa aintzat hartuz gero, fenomeno nahiko berria iruditzen zaigu. Horrez gainera, sarean argitaratutako lanak oro har laburragoak izaten direnez, jende gehiago ari da halakoak itzultzen, eta, horrenbestez, iruditzen zaigu itzultzaileen kopuruak zertxobait desitxuratzeko arriskua egon daitekeela halakoak ere kontuan hartuz gero. Nolanahi ere, etorkizunean aztertzeko gai bat iruditzen zaigu, besteak beste ikusteko ea alderik ba ote dagoen modu amateurrean eta borondatez egiten diren itzulpenetan, itzultzaileen generoari dagokionez.

Datu-basea

Lan hau egiteko, EIZIEren NdN datu-baseko datuak erabili dira, hori baita, NdNren beraren webgunean ikus daitekeen moduan, gure eremu honetan «oinarrian itzulpengintza duen

datu-base bakarra» eta, gure ustez, itzultzaileei buruzko informaziorik osatuena biltzen duen katalogoa.

Gure azterketan, testu mota, xede-hizkuntza eta itzulpenaren argitalpen-data erabili ditugu datu-basea osatzeko. Hala, testu motaren atalean, narratiba aukeratu dugu; xede-hizkuntzari dagokionez, euskararenera mugatu dugu bilaketa, eta, itzulpenaren argitalpen-datan, 1990etik 2017ra bitarteko emaitzak eskatu dizkiogu. Emandako datuak txukundu ondoren (datu-basearen emaitzak bistartzeko formatuan akats batzuk baitzeuden), berrargitalpenak zein lehenengoz guk aztergai dugun aldian argitaratu diren arren 1990a baino lehen eginak diren itzulpenak ezabatu ditugu, gure aztergaiari aldi horretan jardunean aritu diren itzultzaileak aztertu nahi izan ditugulako.

Halaber, Literatura Unibertsaleko datuak ere eskuratu ditugu NdNtik, lehiaketa itsu bidez aukeratzen baita bilduma horretako lanak nork itzuliko dituen; horrek aukera emango digu alderatzeko horrelako lehiaketen bidez aukeratzen diren itzultzaileen generoari buruzko datuak eta bestela esleitzen diren itzulpenei buruzkoak. Literatura Unibertsaleko argitalpenei buruzko informazioa eskuratzeko, testu motaren atalean «narratiba» eta bilaketa orokorraren atalean «Literatura unibertsala» hitz-konbinazioarekin egin dugu bilaketa, eta emaitza horietan oinarritu gara azterketa egiteko. Jokin Zaitegi lehiaketa itsuko lanei dagokionez, Elkarren webgunetik jaso dugu informazioa.

NdNtik eskuratutako datu horiei itzultzailearen generoari buruzko informazioa gehitu diegu; itzultzailearen izenean oinarrituta adierazi dugu ea gizonezkoa ala emakumezkoa den.

Guztira, 631 lan bildu ditugu; Literatura Unibertsala bilduman argitaratutakoak dira horietatik 160, eta Jokin Zaitegikoak, berriz, 9.

Datuen analisisa


Atal honetan, bildu ditugu datu-basetik abiatuta gure ustez atera ditugun daturik interesgarrienak. Literatura-lanen itzultzaileei buruzko datuei testuingurua jartzeko balio dutela-eta, EIZIEko bazkideen eta UPV/EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioko graduko ikasleen zenbait datu emango ditugu lehenengo eta behin.

EIZIEko bazkideak

Hona hemen EIZIEko bazkideak nola banatzen diren generoaren arabera. Erdiak baino zerbait gehiago dira emakumezkoak, eta % 46 osatzen dute gizonezko bazkideek. Guztira, erreferentziazat 2018ko martxoko datuak⁴ hartuz, 367 bazkide daude EIZIEn, eta haietatik 197 dira emakumezkoak.

Hiru bazkide mota daude EIZIEn: bazkide arruntak, ikasleak eta ohorezko bazkideak. Azken horiek EIZIEk izendatzen ditu, bere garaian itzultzaile aitzindari izan zirelako.


4. EIZIEko datuak elkartearen idazkaritzan diharduen Arantzazu Royok helarazi dizkigu.



1. grafikoa. EIZIEko bazkideen ehunekoak generoaren arabera. Iturria: EIZIE.

Horiek kenduz gero, emakumezkoen ehunekoa altuxeagoa da; izan ere, bazkide arruntak eta ikasleak aintzat hartuta, 342 bazkide daude elkartean, eta haietatik 197 (% 57,60) emakumezkoak dira.

Jarraian ageri den grafikoa ikus daitezke aztergai izan ditugun urteetan EIZIEko bazkide egin diren kideei buruzko datuak, generoaren arabera. Agerian gelditzen da hasierako urteetan gizonezkoak gehiago zirela. Nabarmena da, esate baterako, 2002an zenbat gizonezko bazkide berri egin ziren; hain justu ere, urte horretan izendatu zituen EIZIEk zenbait ohorezko bazkide (32); guztiak gizonezkoak. Urte horretatik aurrera, baina, gauzak nabarmen aldatzen dira, orduz geroztik emakumezko bazkide berri gehiago baitaude urte guztietan.



2. grafikoa. EIZIEko bazkide berriak urtez urte generoaren arabera. Iturria: EIZIE.


Pentsa liteke 2000ko hamarkadako emakumezko bazkideen igoera horretan eragina izango zuela UPV/EHUn itzulpengintzako ikasketak ezartzeak, aurreraxeago aipatuko den moduan, eskola horietan nabarmen gehiago baitira emakumezkoak.

UPV/EHUko graduko ikasleak

Itzulpengintza eta Interpretazioko graduko ikasleen artean ere, emakumezkoak dira nagusi. UPV/EHU_n 2001-02 ikasturtean ikasketak ezarri zirenetik 2017-18ko ikasturteetan matrikulatu direnen artean, % 80tik gora emakumezkoak izan dira.⁵ Halaber, emakumezkoak izan dira gehien, besteak beste, ikasturte hauetako graduatuen artean ere: 2014-15 ikasturtean, graduatuen % 73,33; 2015-16an, % 89,09, eta 2016-17an, % 86,79.

Testuinguruan jartzeko datu horiek eman ondoren, gure aztergaiaren zenbait datu iruzkinduko ditugu jarraian. Lagina osorik hartuta, literaturan ari diren emakumezkoen ehunekoak urrun dago EIZIEko bazkideen zein UPV/EHUko ikasleen ehunekoetatik. Hain zuzen ere, 1990 eta 2017 artean itzuli eta argitaratu diren liburuen datu-basean, 631 liburu zenbatu ditugu, eta horiek itzultzen 671 itzultzaile aritu dira;⁶ 170 emakumezko eta 501 gizonezko. Horrenbestez, itzultzaile horien artean, % 25,34 izan dira emakumezkoak; lau itzultzailetik bat, alegia.

Urtez urteko bilakaera



3. grafikoa. Itzultzaileen ehunekoak urtez urte generoaren arabera.

5. Datu hauek eskuratzeko, UPV/EHUren «Zenbakitan» (<http://www.ehu.es/zenbakitan/eu/node/3.html>) atalera jo dugu, baina azken urteetako daturik ez da agertzen. Ana Aguinaco Letren Fakultateko administrariak helarazi dizkigu, Artus aplikazio informatikoa oinarri hartuta.
6. Itzultzaile kopuru hori sinatze kopuruari dagokio. Ez dira 671 itzultzaile, aintzat hartu baitira itzultzaile bakoitzak egin dituen argitalpen guztiak, eta guztiak zenbatu baitira itzultzaile beregain baten lan gisa, hau da, itzultzaile batek bi itzulpen argitaratu baditu, bi aldiz egongo da zenbatuta itzultzaile bera. Besterik da itzultzaile absolutuez hitz egiten denean; kasu horretan, lan bat baino gehiago sinatu badu ere, behin bakarrik egongo da zenbatuta.


Grafikoan ikus daitekeenez, emakumezko itzultzaileen kopurua, urtez urte, gizonetzko itzultzaileena baino baxuagoa izan da, 2017an izan ezik; izan ere, urte horretan aritutako 19 itzultzailetik 12 (% 63,16) emakumezkoak izan ziren, eta 7 (% 36,84) gizonetzkoak.

Batez beste, urte bakoitzean 22 argitalpen eta 23 itzultzaile egon dira; haietatik 6 izan dira emakumezkoak eta 17 gizonetzkoak; horrenbestez, gizonetzkoak emakumezkoak halako hiru izan dira ia. Esan bezala, emakumezkoen ehunekorik altuena 2017koa da, eta baxuena, berriz, 2001ekoa; hain justu, urte horretako itzultzaileen artean % 7,14 izan ziren emakumezkoak, eta aurreko urteko kopurua ere paretsua da (% 7,69). Bestalde, 2002tik aurrera, emakumeen ehunekoa 15etik gora egon da urte guztietan. 2002-2017 aldiko batezbestekoei erreparatuz gero, emakumezko itzultzaileak % 29,35 izan dira; hortaz, ehuneko hori aztergai izan dugun aldi osokoa baino zertxobait altuagoa da.

Lehiaketa bidez esleitutako itzulpenak eta bestela esleitutakoak

Lehiaketa bidez esleitutako lanen artean, 169 lan zenbatu ditugu; 160 Literatura Unibertsitatea bildumari dagozkio, eta 9 Jokin Zaitegi lehiaketari. Lehiaketa horietan esleitutako lanak egin dituzten itzultzaileak 184 izan dira guztira; haietatik 52 izan dira emakumezkoak; % 28,26, beraz. Bestela esleitutakoak, aldiz, 462 izan dira denera, eta 487 itzultzailek egin dituzte itzulpenok. Itzulpen horietan, 118 izan dira emakumezkoak —% 24,23, alegia—, eta gizonetzkoak 369 (% 75,77). Hala, bada, lehiaketa bidez esleitutako lanetan, emakumezkoen ehunekoa apur bat handiagoa da bestela esleitutako lanen ehunekoaren aldean, nahiz eta zifra hori ere urrun dagoen EIZIEko bazkideen zein Itzulpengintzako ikasleen proportzioetatik.

Itzultzaileen kopuru absolutuak



4. grafikoa: Itzultzaileen ehunekoak generoaren arabera.

Datu-basean bildu ditugun lanetan parte hartu duten itzultzaileak guztira 227⁷ izan dira; 65 emakumezkoak dira, eta 162 gizonetzkoak, hau da, 10etik 7 pasatxo dira gizonetzkoak eta ia 3 emakumezkoak.

7. Kasu honetan, behin bakarrik zenbatu dira itzultzaileak.

Paragrafo honen ondorengo taulan ikus daitezke 227 itzultzaile horietatik argitalpen gehien dituzten lehen 30 itzultzaileak, bakoitzaren argitalpen kopuruarekin batera, eta zenbaki horren arabera hurrenkeran. Ikus daitekeenez, lehen postuan dauden emakumezkoaren, Koro Navaroren, eta gizonezkoaren, Xabier Olarraren, argitalpen kopurua nahiko antzerakoa da; 25 eta 28, hurrenez hurren. Edonola ere, bigarrenen artean, Josu Zabaletaren kopurua Miren Arratibelenaren bikoitza da, eta hortik aurrerako aldea ere nabaria da.


	Itzultzailea	Argitalpenak		Itzultzailea	Argitalpenak
1	Koro Navarro	25	1	Xabier Olarra	28
2	Miren Arratibel	12	2	Josu Zabaleta	24
3	Asun Garikano	7	3	Fernando Rey	23
4	Bego Montorio	6	4	Gerardo Markuleta	16
5	Irene Aldasoro	6	5	Xabier Mendiguren Bereziartu	14
6	Eskarne Mujika	5	6	Juan Mari Mendizabal	13
7	Monika Etxebarria	5	7	Anton Garikano	12
8	Itziar Otegi	5	8	Joseba Urteaga Uria	11
9	Itziar Diez de Ultzurrun	5	9	Koldo Biguri	11
10	Aintzane Ibarzabal	4	10	Joxan Elozegi	11
11	Ana Isabel Morales	4	11	Lukas Dorransoro	9
12	Aintzane Atela	4	12	Mikel Garmendia	9
13	Arantzazu Royo	4	13	Juan Garzia	8
14	Naroa Zubillaga	4	14	Javi Cillero	8
15	Mirentxu Larrañaga	3	15	Oskar Arana	8
16	Olga Martinez de Marigorta	3	16	Matías Múgica	7
17	Aiora Jaka	3	17	Jose Morales	7
18	Usoa Wyssenbach	3	18	Xabier Galarreta	6
19	Estibaliz Lizaso	3	19	Juan Kruz Igerabide	6
20	Garazi Arrula	3	20	Jose Antonio Sarasola Arregi	6
21	Hiromi Yoshida	2	21	Edorta Matauko	6
22	Idoia Gillenea	2	22	Antton Olano	6
23	Maite Lopetegi Campano	2	23	Aitor Arana	6
24	Ainhoa Eder Zabala	2	24	Karlos Zabala	6
25	Josune Zuzuarregi	2	25	Patxi Zubizarreta	6
26	Ainhoa Irazustabarrena	2	26	Luis Berrizbeitia	5
27	Uxue Alberdi	2	27	Iñaki Ibañez	5
28	Itziar de Blas	2	28	Karlos Cid Abasolo	5
29	Nagore Tolosa	2	29	Jon Muñoz	5
30	Irati Elorrieta	2	30	Pello Lizarralde	5
	GUZTIRA	134		GUZTIRA	292

2. taula. Itzulpen gehien argitaratu dituzten 30 itzultzaileak eta bakoitzaren argitalpen kopuruak.

Azken hamarren datuei erreparatuz gero ere ikusten da aldea, postu horietan dauden emakumezkoen argitalpenak 2 baitira eta gizonezkoenak aldiz 6 eta 5. Taula horrekin bukatzeko, konparazio baterako, lehen 30 itzultzaileen argitalpenak guztira hartuz gero, emakumezkoenak 134 dira; gizonezkoenak, ostera, 292; bikoitza baino gehiago, beraz.

Argitaletxeka

Bi grafiko hauetan ikus daitezke, batetik, argitaletxe bakoitzak argitaratu duen liburu kopurua, eta, bestetik, liburu horiek itzultzen aritu diren emakumezko eta gizonezkoen ehunekoak. Grafikook egiteko ez dira kontuan hartu lehiaketa bidez esleitu diren lanak, ez eta liburu bakarra argitaratu duten argitaletxeak ere. Hartara, guztira, 433 argitalpen izan ditugu kontuan, eta 458 itzultzaile kontatu ditugu.⁸




5. grafikoa. Argitaletxeen argitalpenak.

Ikus daitekeen moduan, argitalpen gehien (108) Igelak egin ditu, eta horren atzetik daude Erein (73), Alberdania (59), Txalaparta (43) eta Elkar (41). Haien ondoren dago Hiria (21), baina Elkarren argitalpen kopurua bikoitza da argitaletxe horrenaren aldean. Gainerako argitaletxeen kopuruak 20tik behera daude; Meettokek 16 ditu; Pasazaitek 12; Denonarteanek 10; Pamielak 9; Alberdaniak eta Ereinek batera 8; Infomartek 5; Susak eta Txertoak 4na; Edo!-k, Eganek eta EHUk eta ZTK ekoizpenak-ek 3na; eta 2na Berminghamek, Katakrakek eta Maiatzek.

Bigarren taula honetan ikus daiteke argitaletxe bakoitzean argitaratu diren lanetan ehuneko zenbat izan diren itzultzaileak gizonezkoak eta zenbat emakumezkoak.

8. Berriz ere dihardugu sinatze kopuruei buruz.



6. grafikoa. Argitaletxeetako argitalpenen itzultzaileak generoaren arabera (%).

Emakumezkoek itzulitako lanen ehunekoei erreparatuz gero, Katakraken ehunekoa da altuena; hain zuzen, argitaraturiko lan guztietan (2) aritu dira itzultzaile emakumezkoak (3). Horren ondoren leudeke Edo! argitaletxea eta Alberdania eta Ereinen artean argitaratutako itzulpenak. Hain zuzen ere, bi horiek argitaraturiko lanen % 66,67 itzuli dituzte emakumezkoek. Azkenik, Pasazaiteren lanak itzuli dituzten % 58,33 izan dira emakumezkoak. Gainerako argitaletxeen itzulpenen erdiak baino gehiago gizonzkoek egin dituzte.

Hori ikusirik, pentsa liteke zenbat eta argitaletxe berriagoa izan emakumezko itzultzaileen ehunekoa altuagoa dela, nahiz eta aipatu behar den itzulpenak ere gutxiago direla. Katakarak, Edo! eta Pasazaita 2010eko hamarkadan sortutako argitaletxeak dira guztiak, eta Alberdaniak eta Ereinek ere hamarraldi horren hasieran ekin zioten Batera saileko lanak elkarlanean argitaratzeari.

Itzulpen gehien argitaratu dituzten argitaletxeei dagokienez, emakumezko itzultzaileen ehunekorik altuena Txalapartarena da: itzultzaileen % 30,43 da emakumezkoa; horren ondoren daude Elkar (% 26,19), Alberdania (% 21,67), Igela (% 21,24) eta Erein (% 19,23).

Bukatzeko, zenbait argitaletxetan, emakumezko bat ere ez da aritu gure ikergaiari dagozkion lanak itzultzen; guztiek dituzte 5 argitalpen edo gutxiago: Infomart (5), Egan (3), ZTK ekoizpenak (3), Bermingham (2) eta Maiatz (2).

Taldean egindako itzulpenak

Bi itzultzailearen edo gehiagoren artean egin diren 31 lan daude datu-basean, eta 70 itzultzaile⁹ jardun dira lan horiek itzultzen; emakumezkoak adina gizonetzko. Lehiaketa bidez esleituta, 10 lan itzuli dira taldean, 25 itzultzailearen eskutik, eta haietatik % 56 dira emakumezkoak. Esan daiteke, beraz, lehiaketetan, gizonetzko baino emakumezko gehiago aritu direla talde-lanean.

Bestela esleitu direnen artean, bestalde, erdiak baino gutxiago izan dira emakumezkoak: 10etik 4,6, hain justu.

Kopuru absolutuei erreparatuz gero, 52 izan dira guztira¹⁰ 31 lan horiek itzuli dituzten itzultzaileak; horrenbestez, batzuk behin baino gehiagotan aritu dira taldean itzultzen. Hain justu, 52 itzultzaile horietatik 27 izan dira emakumezkoak, eta 25 gizonetzkoak. Horrek esan nahi du gure datu-basean agertzen diren emakumezko itzultzaileen % 41,54k noizbait taldean argitaratu duela lanen bat, eta gizonetzkoen artean, berriz, % 15,43k.

Laburbilduz

Bukatzeko, ondorio gisa esan dezakegu alde nabaria dagoela EIZIEko bazkide emakumezkoen eta Itzulpengintzako ikasketetako emakumezkoen eta narratibako lanak itzuli dituzten emakumezkoen ehunekoetan. Halaber, kopuru absolutuei erreparatuz gero, langintza horretan aritu diren emakumezkoen kopurua baxuagoa da gizonetzkoen kopuruaren aldean, bai eta genero bakoitzeko itzultzaileen argitalpen kopuruak ere, gizonetzkoei argitaratu dituztenak bikoitza baino gehixeago baitira emakumezkoen aldean.

Lehiaketa bidez edo bestela esleitu diren lanei dagokienez ere, aipagarria da emakumezkoen ehunekoa zertxobait altuagoa dela lehiaketen kasuan. Horrek esan nahi du oraindik ere enkar-guak egiterakoan gutxiago jotzen dela emakumezko itzultzaileengana, eta horixe ikusten da datuak argitaletxeen arabera erakusten dituen grafikoan ere.

Bukatzeko, taldean argitaratzeari dagokionez eta kopuru absolutuak oinarri hartuta, ondoriozta daiteke emakumezkoek gehiago jotzen dutela taldean itzultzera gizonetzkoei baino.

9. Sinatze kopuruei buruz ari gara hemen.

10. Kasu honetan, itzultzaileak behin bakarrik zenbatu dira, nahiz eta lan bat baino gehiago argitaratu taldean.

BIBLIOGRAFIA

- ARRIZABALAGA, Bakartxo (2007). «Itzulpena eta feminismoa». *Senez* 32. <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20080201/bakartxo>.
- GARCIA LOPEZ, Ane (2016). *Poesia itzulpena: jarduera periferiko baten analisisa*. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/21398/GRAL_GarciaLopez%2CA.pdf?sequence=2&isAllowed=y (Kontsulta: 2018-06-12).
- IBARLUZEA SANTISTEBAN, Miren (2013). «Literatura Unibertsala bildumaren bideak». *Lapur-dum* 17. <https://journals.openedition.org/lapurdum/2418>.
- LÓPEZ GASENI, Manu (2009). *Euskal itzulpenen inbentarioa eta azterketa (1976-2008)*. <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/inbentarioa/azterketa.pdf>.
- MONTORIO URIBARREN, Bego (2014). *Sotanak eta bestelako gonak*. <https://3ieskutik.com/2014/09/13/sotanak-eta-bestelako-gonak/> (Kontsulta: 2018-06-12).
- NOR DA NOR datu-basea. <http://nordanor.eus/> (Kontsulta: 2018-06-12).
- SARRIUGARTE, Danele (2013). *Euskarazko itzulpengintza: azkenaldiko joerak (I)*. <http://elearazi.eizie.eus/2013/07/29/euskarazko-itzulpengintza-azkenaldiko-joerak-i/> (Kontsulta: 2018-06-12).
- SIADeco (2006). *Euskal itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen ikerketa soziologikoa (2006)*.
- TORREALDAI, Joan Mari (2018): «Euskal liburugintza 2016», *Jakin* 226, 93.-110. or.
- UPV/EHU Zenbakitan. *Graduko ikasketak*. <http://www.ehu.eus/zenbakitan/eu/node/3.html> (Kontsulta: 2018-06-12).

Resumen

Este artículo realiza un análisis cuantitativo desde la perspectiva de género, de los y las traductoras de libros de género narrativo traducidos y publicados entre 1990 y 2017. Tras un breve resumen de algunos trabajos donde se aborda el tema principal del análisis, se explica la metodología de trabajo, donde se enumeran las razones por las que el mismo se centra en ese género literario y esa época. Además, se describe la base de datos realizada para el análisis, basada en los datos extraídos de *Nor da Nor*. Tras ello, se analizan los datos, donde se pone atención en cuestiones como la evolución de las traductoras en este género, el número de libros traducidos por mujeres, el número de las traductoras en la narrativa y el número de traductoras en diversas editoriales.

Résumé

Cet article propose une analyse, depuis la perspective de genre, des traductions de prose littéraire entre 1990 et 2017. Après un bref résumé des recherches déjà menées sur le sujet, nous exposons notre méthodologie de recherche ; nous délimitons d'abord la période du sujet traité ainsi que le genre littéraire, puis, nous répertorions les caractéristiques de la base de données. Ensuite, en se basant sur les données obtenues par le biais de la base de données *Nor da Nor*, nous analysons, entre autres, les questions suivantes : le nombre de femmes traduisant des œuvres littéraires, l'évolution du pourcentage des traducteurs, la différence entre les traductions accordées aux femmes lors des concours anonymes de traduction ou accordées autrement, et le nombre de livres traduit par des femmes dans chaque maison d'édition.

Abstract

This article carries out a quantitative analysis of the gender of translators of narrative works published between 1990 and 2017. After a brief summary of previous works on the topic, the methodology is explained: the period of time and literary genre under consideration are defined, and the database is described. Next, the following are examined based on information from the *Nor da Nor* database: how many women translate works of this type; what changes have there been in the percentages of female translators; what differences are there with respect to the female presence between works selected in anonymous translation competitions and those selected other ways; and how many works translated by women have been published by each publishing house.